BESTELAKO XEDAPENAK

LEHENDAKARITZA

1305

EBAZPENA, 2014ko otsailaren 27koa, Lehendakaritzako idazkari nagusiarena, baliorik gabe uzten duena, Publizitate Instituzionalari buruzko Sailarteko Batzordeko buruaren egitekoak direla-eta, Komunikaziorako zuzendariari egindako eskumen eskuordetzea.

Azaroaren 22ko 237/2011 Dekretuaren bitartez, Publizitate Instituzionalari buruzko Sailarteko Batzordearen osaera, antolaketa eta funtzionamendua arautu zen. Aipatutako Dekretuaren 3. artikuluan ezarritakoaren arabera, Eusko Jaurlaritzaren Komunikaziorako Idazkaritza Nagusiaren pertsona titularra edo berak eskuorde izendatzen duena izango da batzorde horretako burua.

Lehendakaritzako idazkari nagusiaren 2013ko maiatzaren 23ko Ebazpenaren bitartez, Komunikaziorako zuzendariaren esku utzi ziren, Publizitate Instituzionalari buruzko Sailarteko Batzordeko buruaren egitekoak direla-eta, Lehendakaritzaren idazkari nagusiari esleitutako eskumenak, Lehendakaritzaren egitura organikoa eta funtzionala ezartzeko den apirilaren 9ko 187/2013 Dekretuaren 5. artikuluaren arabera.

Otsailaren 11ko 12/2014 Dekretuaren bitartez (2014ko otsailaren 14ko Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkaria, 31. zk.), aldatu egin da Lehendakaritzako egitura organikoa eta funtzionala ezartzen duen Dekretua. Dekretu horrek jasotako aldaketen artean, Komunikaziorako Zuzendaritzari esleitu zaizkio komunikazio arloko eskumen guztiak, aurretik Lehendakaritzako idazkari nagusiari esleituta zeudenak.

Horregatik guztiarengatik, eta kontuan hartuta oraingo arau esparruarekin Komunikaziorako zuzendariari dagokiola Publizitate Instituzionalari buruzko Sailarteko Batzordeko buru izatea, hauxe

EBAZTEN DUT:

Lehenengoa.– Baliorik gabe uztea, Publizitate Instituzionalari buruzko Sailarteko Batzordearen buruaren egitekoak direla-eta, Komunikaziorako zuzendari egindako eskumen eskuordetzea. Lehendakaritzako idazkaritza nagusiaren 2013ko maiatzaren 23ko Ebazpenaren bitartez egin zen eskuordetze hori.

Bigarrena.– Ebazpen hau Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratzeko agintzea.

Vitoria-Gasteiz, 2014ko otsailaren 27a.

Lehendakaritzako idazkari nagusia,
JESÚS MARÍA PEÑA MARTÍNEZ.